


UDALBILTZA[®]

BATZAR NAGUSIA



GESTIO POLITIKOAREN TXOSTENA

Donostia, 2002ko apirilaren 13an



UDALBILTZA®

Hautetsi eta gonbidatu jaun-andreok, denoi agur

Egun on eta ongi etorriak izan zaitezte Donostiako Kursalean ospatzen dugun UDALBILTZAren Batza Nagusi honetara.

Bilboko Euskalduna Jauregian, 1999ko irailaren 18an sortu zenetik hona, gaurko hau da UDALBILTZA egiten duen lehen Batzar Nagusia. Lehenengoa, baita ere, Batasuneko udal hautetsiek erakundea uztea erabaki eta beraien foro propio bat antolatzea erabaki zutenetik.

Gaurko Batzarrean jorratu nahi ditugun helburuak hiru dira, funtsean: lehenik eta behin, UDALBILTZAren sorrerako printzipioen balioa eta iraunkortasuna aitortu nahi ditugu, gaur hemen berriro eta, bide batez azkeneko bi urte eta erdi neketsuen buruan, Zuzendaritza Batzorde honek eman dituen urratsen berri agertu nahi dizuegu; bigarrenik, aurtengo urterako burutu dugun Lan Egitasmoa aurkeztuko dizuegu; eta, hirugarrenkoz, Euskal Herriak bizi duen egoera politikoa gaitzat harturik, gure Adierazpen Instituzionala aldarrikatuko dugu.

Izan ere, gertaera asko suertatu da 1999ko irailaren 18a ezker. Baina sarri-askotan ziztu bizian agertu eta desagertzen da gertaeren oroimena, batak bestea estaltzen duelako eta azkenekoan aurrekoa itzaltzen duelako. Eta hortik dator maiz, gertatuen alde eta xehetasun garrantzizkoak ahazteko arriskua, edota, are gehiago, egoeraren perspektiba zabala eta ikuspegi osotarikoa galtzeko arriskua eta, ondorioz, azterketa okerrak eta neurri politiko desegokiak hartzera eramateko arriskua.

Horregatik, tartetxo bat eskatzen dizuet, labur bederen, UDALBILTZAren sorrerako giro politiko hura gogora ekartzeko.

1998ko irailaren 18an adierazi zuen ETAk bere su-etena. Unilateralala, baldintzarik eta epe jakinik gabekoa. Une hartatik aurrera sekulako ilusioz eta itxaropena sortu zuen etapa bat ireki zen Euskal Herrian, hiltzeari uztearekin ETAk bere aktiboa ekarri zuelarik. Gauza jakina da, artean ere, bizirik jarraitzen zutela "kale borrokaren" ekintzek eta hauetan kaltetuak, askotan, gure udalkide udal hautetsiak izan zirela. Baina euskal hiritar askok sentitu eta amestu zuen Euskal Herriaren normalkuntza eta bakegintza politikoa lortzeko tunelaren amaierako argi-printza.

Guk ordezkutzen dugun abertzaletasun demokratikoaren erantzuna nabarmena izan zen, distentsio egoera sendotzearen alde, behin betirako denontzat bakera ekarriko duen normalizazio eszenatoki baten alde ahaleginduaz.

Etapa honetan burutuak dira ezker abertzaleekin udaletxe batzuetan adostutako egitasmoak. Lehenago ezinezkoa zena, EH/Batasunak giza eskubideen urraketaen aurrean eta indarkeriaren erabileraren aurrean jarrera garbirik hartzen ez zuelako, posible egin zen giro hartan.

Beste ekintza batzuek bezala, distentsio giro haren babesean sortutakoa dugu UDALBILTZA erakundea ere:

- Udal izaera duen erakundea, hau da, abertzaletasun demokratikoaren udalzaletasun tradizionala jasotzen duena, hiritarrei eta oinezkoei itsatsia dagoen abertzaletasun demokratikoa, herritarren zerbitzuan dagoena eta herri honen sostengu politiko, ekonomiko, kultural eta sozial dena, gure historiaren une garrantzizko askotan probatu den bezala;
- Udal izaerako erakunde, baita ere, udal erakundeak homologatuak daudelako eta euskal lurralde guztietan tinko erroturik daudelako. Beraz, Euskal Herriaren lurraldetasunaren lekuko da UDALBILTZA, eta bere izate nazionala, kulturala eta hizkuntzazkoaren adierazgarri, nahiz eta politikoki bi Estatuan kokatutako hiru komunitate administratiboetan zatiturik egon eta, ondorioz,

egoera sozio-ekonomiko desorekatu eta deskonpesatu batean aurkitu;

- Erakunde demokratikoa eta guztiz zilegia, UDALBILTZA osatzen dugun alkate eta hautetsiak hauteskundeetan hiritarrek hautatuak izan garelako, gure hautesleak ordezkatzeko eskubide osoa daukagulako eta, Euskal Herria osotasunean harturik, gure ekimenak eta egitasmoak elkarrekin, auzolanean, ahalbideratzeko zilegitasuna dugulako;
- Erakunde modernoa, gero eta hurbilago eta irekiago bilakatzen ari den Europan berariazko hiritarren asmoak muga artifizialen gainetik, aintzakotzat hartzen direlako eta jarrera horrek berak ere Herri bezala garatzeko euskaldunok dugun eskubidea areagotzen du.

Labur esateko, erakunde honen helburuak oso xume eta bidezkoak dira; udalen ekimenez eta eraginez Euskal Herriko lurralde ezberdinetako hiritarrek elkar ezagutu, harremanetan jarri, beraien gogoko ekimenak eta proiektuak elkarrekin bideratzen lagundu; hots, Herri bezala eta norberaren ongizaterako egoki irizten dioten ekintzak askatasunez garatzeko aukera eskaini.

Eta hau dena, oinarrizko printzipiorik funtsezkoenak onartu eta berretsirik, batez ere, gure Batzar konstitutzailan onartu genuena:

"Euskal herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik, eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik"

Idea honek nabarmen adierazten du pertsona guztien oinarrizko eskubideen aldeko jarrera eta giza eskubideak urratzearen kontrako salaketa eraginkorra.

Helburu eta egitasmo guzti hauekin, Iruñean bildu ginen lehenago, 1999ko otsailaren 6an eta Bilboko Euskalduna Jauregian, ondoren, urte bereko irailaren 18an, Erakunde honi bizia eta arnasa emateko.

Hasera hasieratik, eraso ugari eta manipulazio andana nozitzea tokatu zaio UDALBILTZAri, indar politiko eta komunikabide espainiar eta frantziar batzuen aldetik. Ahaleginak eta bi egin zituzten UDALBILTZAK porrot egin zezan, gezurrezko ezaugarri eta posizionamendu politikoak egotziaz eta bere benetako adierazpen eta komunikazioak isilean gordeaz. Beraiek izan ziren, su-etenaren garaian distentsio giroa sendotu ordez, adibidez, presoak Euskal Herrira hurbilduz, oztopoak jartzen aritu zirenak, eta beraien tranpan jausi zen gero ETA, ulertezina badirudi ere.

Halere, hori horrela izanik, UDALBILTZAren lehen urratsak ilusioz eta gogoz bete beteak izan ziren. Eta Erakunde barneko hautetsien elkarlana fruituak ematen hasi zen.

Lehenengo asteetan osatu ziren Erakundeko Batzorde Iraunkorra eta Lan Taldeak, hogeita hamar bat hautetsik parte hartzen zuelarik, lan konplexu eta neketsu bati heltzeko, ekimen berri bati hutsetik abiatuta eragin behar geniolako. Eta Euskalduna Jauregian erabakitakoaren arabera, bide onetik ari zen burutzen Lan Egitasmoaren osaketa.

1. Su-etenaren etena eta bere ondorioak

Tamalez, gero ikusi den bezala, giza-hondamendi eta politikoa ondorio kaltegarriak ekarri dituen albistea jaso zuten hiritarrek 1999ko abenduan: amaitutzat eman zuen ETAk 1998ko irailaren 18an indarrean jarritako su-etena eta lehen aipatu dugun moduan, ezker abertzaleekin bideratutako zenbait elkarlan, UDALBILTZA barne, ahalbideratu zuen etapa.

Su-etenaren erabateko haustura 2000ko urtarrilaren 21ean gauzatu zen Madrilen Blanco koronela erail zutenean. Erailketak bata bestearen atzetik etorri ziren, gure udalkideak, udal hautetsiak harrapatzeraino, Batzar honen atarian gogoratu dugunez. Atentatuen aurrean Euskal Herritarrok-ek eskainitako erantzun epela eta nahikoeza ikusirik, erakunde politiko honekin "*erkarlan aktiborik*" ez garatzeko erabakia hartu zuten EAJ-PNVek eta EAK, gutxienez beraien jarrera aldatzen ez zuten bitartean. Printzipio hau praktikara eramaten zen, lehenago Eusko

Legebiltzarrean EHrekiko akordioak bertan behera utziaz eta gero erabat etenaz; Lizarra-Garaziko eta Batera Adierazpenetan aurreikusitako ekinaldiak bertan behera utziaz eta udal akordioak etenaz. Era berean, printzipio honek izan zuen bere txertaketa UDALBILTZAn.

2. EH ez da mugitzen

2000ko martxoaren 28an, UDALBILTZAKo Batzorde Iraunkorrek, Adierazpen Institutuzional bat onartzen du, EHkoen abstentzioarekin. Bertan adierazitako puntuak aski garrantzitsuak eta nahiko egungoak iruditzen zaizkit, hemen eta orain zuei gogoratzeko:

1.- Indarkeriaren erabilerarik gabe, era demokratikoan, askatasunean eta hiritarren borondatean eta erabakimenean oinarritu behar dela naziogintza. Eta beti ere giza eskubideak erabat errespetatuaz.

2.- Euskal hiritarrak direla euskal nazioaren eta honen eskubideen subjektu, eta ez dutela onartuko inposaturiko marko politiko mugiezinik ez eta indarrez inposatutako askapenik.

3.- ETAk oztopo egiten diola euskal nazio eraikuntzari. Bere atentatuak ez dute giza eskubiderik eta hiritarren borondaterik errespetatzen. Euskal gizarteari bere etorkizuna bakean erabakitzen uztea exijitzen diogu. Hori litzake eta bere erabakirik onena eta ausartena. Utz diezaiola euskal gizarteari hitz egiten eta gera dadila. Ezkonezinak baitira indarkeria eta naziogintza, demokrazia eta inposaketa.

4.- UDALBILTZAK eutsi egingo diola hasitako bideari eta hartutako konpromezuari. Bere helburuak betetzen ahaleginduko dela, dituen bitarteko guztiekin, baina beti ere Udal eta Udal Hautetsien borondatezko partehartzean eta inposaketarik gabeko demokrazian oinarritutako Nazio Eraikuntzan.

Beste kontsiderazio asko alde batera utzirik ere, guztiz kontrajarria gertatzen da, EH/Batasunakoek hitzez onartzen zuten bezala, alde batetik UDALBILTZA sentsibilitate eta pentsakera guztietako hautetsiei

irekia egotea eta besterik, udal hautetsiak erailak, behartuak edo mehatxatuak direnean, inongo irizpide etiko edota gizatiarri gabe, isilik eta mutu geratzea.

EHren jarrera abstentzionista eta iheskorak UDALBILTZAren Batzar Nagusia "*sine die*" atzeratzea ekarri zuen, ondorio gisan, eta 2000ko maiatzaren Donostiako Kursaal honetan egiteko zena bertan behera geratu zen. Una horretatik aurrera, 2000garren urteko Lan Egitasmoa onartzea mugatu zen Batzorde Iraunkorrek. Izan ere, ordurako ia burutua baitzegoen eginkizun hori eta handik aurrera ezker abertzaleak zer nolako bilakaera eta jarrera izaten zuen indarkeriari buruz ikusteko denbora hartu zen.

EHk, ordea, ez zuen bere jarrerarik aldatu. Bai zera, UDALBILTZA bultzatzeko aitzakiarekin Batzar bat antolatu zuen Iruñean 2000ko irailean. EHko hautetsiek bakarrik hartu zuten parte Batzarrean eta Abertzaleen Batasuneko (AB) banaka batzuek, bere zatiketa aurretik. Egun batzuek geroago, bere lantalde propioak antolatu zituen EHk eta irudi korporatibo bitxi eta berezi batekin identifikatu zuen Batzar berri hori. Aldi berean, esplikaziorik eta koherentziarik ez duen EHren Legebiltzarrerera ez joan izanak, ateak irekita utzi zien PP-PSE-PSOE eta UA legez besteko proposamen bat aurrera ateratzeko, Euskal Autonomi Erkidegoko aurrekontu orokorretan UDALBILTZArentzat izendatuta zeuden 25 milioi pezeta ez ordaintzeko gomendatuaz.

Berehalaxe geratu zen nabarmen EHren helburua ez zela UDALBILTZA indartzea, beraien Batzar propioa sortzea baizik.

Guzti honen aurrean -indarkeriarekiko erantzun ahula, haien Batzar propioak sortzea eta Legebiltzarreko lanekiko ardurarik eza- UDALBILTZAren zuzendaritza politikotik kanpo EH uztea erabaki zuten EAJ-PNVek eta EAK eta gauza bera Udalbide Elkarlan Elkartetik.

3. EH, UDALBILTZAren zuzendaritzatik eta kudeaketatik kanpo

Erakundea politikoki zuzendu eta kudeatuko duen Zuzendaritza Batzorde bat sortzea erabaki zuten EAJ-PNVek eta EAK azaroaren 22an bildutako UDALBILTZAren Batzorde Iraunkorren eta hortik kanpo geratzen da EH.

Egun horietan, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek UDALBILTZAri diru laguntza ordaintzen diote, hau da, 93 eta 63 milioi pezeta, bakoitzak. 2000ko otsailaren 9an, UDALBILTZAren Zuzendaritza Batzorde berriak lehen proiektuak aztertu eta onartzen ditu, Nafarroan eta Iparraldean euskara bultzatzen ari diren ekimen alde, bere lan programari hasiera emanaz.

Azkenik, 2001ko otsailaren 24ean, aurreko irailtik bistakoa zena gauzatzen du EHk: bere Batzar propioa antolatzen du UDALBILTZAren ordezkariak aldarrikatuz.

4. UDALBILTZAren 2001ko Lan Egitasmoa

2001garren urtean, aipatu ditudan zailtasun politiko eta finantzario guztiak kontutan izanik, bere barne antolaketa bermatzen (egoitza, oinarrizko azpiegitura e.a.) eta bere lan egitaraua bideratzen saiatzen da UDALBILTZA.

2001ko Lan Egitasmoan hauek izan dira, beste batzuen artean, aurrera eramane diren ekitaldiak:

Barne antolamenduari dagokionez, Iruñeako egoitza zentrala eta Donostiako bulegoaren alokatzea dira aipagarri. Pertsonalari dagokionez, gaur dugun laguntzaz aparte, aldi baterako bi pertsona ahalik eta azkarrena kontratatzea espero dugu, hasitako lanak aurrera eramateko eta berriak martxan jartzeko.

Egitarauari dagokionean, laguntza behar duten hiritar sektoreekin harremanak edukitzea ezan da egitekorik nagusiarena; hau da, euskara, hezkuntza, komunikabideak eta kultura lantzen ari diren elkarte eta sektoreekin.

Euskararen arloan, bere egoera ahulena den lekuetan eta laguntza berezia behar duten tokietan, bere babesa ematen saiatu da UDALBILTZA. Horrela, Nafarroan eta Iparraldean, hezkuntza, kultura eta komunikabideetako sektoretan gure hizkuntza, euskara, landu eta garatzen ari diren ekimenei bultzada emanaz.

Iparraldean, honako elkarteei eman zaie babesa:

- UDA-LEKU: eskola haurrentzat aisialdiak euskaraz antolatzen dituen elkarte, Iparraldean, baina Hegoaldekoekin trukaketa eta elkarrekiko egonaldiak eginaz. Baita ere, elkarte honek euskarazko haurtzaindegi bat kudeatzen du Iparraldean.
- IKAS-BI: sare publikoan dabilzan neska-mutilen gurasoen elkarte eta euskara garatzen ahalegintzen dena. Eskolan dabilzanen egonaldiak finantzatzen lagundu zaie, Hegoaldekoekin trukaketak eta topaguneak bideratzen eta euskarazko testuak egiten jarraitzeko dirulaguntza eman zaie, matematika gaiak euskaratzeko eta NANAI aldizkaria argitaratzeko.
- EUSKAL HAZIAK: sare pribatu edo katolikoan euskarazko hezkuntza suspertzen saiatzen den elkarte.

Komunikabideen arloan, EUSKAL IRRATIAK jaso zuen diru-laguntza bat bere azpiegitura teknikoa berritzeko. Elkarte honetan hiru irrati biltzen dira Iparraldean: Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza, eta jaso duten laguntzari esker beraien emisio jardunaldiak hobetzeko modua izan dute.

Bestalde, kultur gaietan, GARAZIKUS elkarteari ere eman zitzaion babesa, ekintza kulturalen hiruhilabeteko ekitaldien gida bat argitatzeko; alegia, Iparraldeko etxe guztietan banatzen den gida kultural bat argitaratzeko.

Esan beharrekoa da, UDALBILTZAK laguntza hauek eman dituen bakoitzean, han izan direla, gurekin batera, Iparraldeko gure kide, udal hautetsi ugari, nahiz ez izan Erakunde honen partaide formalki.

Harreman hauek oso onuragarriak izan dira beti eta denak aitortu izan digute bi aldeen arteko elkarlana indartzearen premia. Lan eta egiteko handia daukagu gure aurrean eta ziur naiz, elkarren errespetuan eta askatasunean oinarriturik, bide honek, auzolan honek, fruitu nabariak emango dituela.

Nafarroan ere esparru berdinak izan dira ukitu ditugunak. Denok dakigu Nafarroan euskarak pairatzen duen egoera nolakoa den. UDALBILTZAK bere adierazpen batean euskara defendatu eta sustatu beharra azpimarratzen zuen eta hiritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko eskatzen zien Nafarroako agintari foralei, euskara ondare kultural bezala tratatu zezaten eta hiritar denen ondare moduak kontsideratua izan zedin.

Honela, burututako ekintza zehatzak hauek izan dira:

- Euskara Kultur Elkargoa: Nafarroan euskara bultzatzen duen elkarte bat dugu hau eta "Artekaria" deitu ekimena martxan jartzen lagundu genion. Bi abokatu egiten dute lan zerbitzu honetan eta nafarren hizkuntza eskubideak defendatzea du helburu, bereziki euskararenak, noski, norberakoaren eta taldeen euskara erabiltzeko eskubideak babestuaz;
- SORTZEN: "Euskaraz mintzo" ekimena aurkeztu ziguten eta berari lagundu genion, eskola ordutik kanpo, haur eta gurasoentzako jolasak eta jokoak euskaraz antolatuz. Eskolako geletatik at ere euskararen erabilera bultzatzea zuen helburu eta baita, gurasoak hortan buru-belarri parte hartzea ere;
- EUSKALERRIA IRRATIA: Iruñea aldean egiten du euskarazko irratia, Betelu eta Sakana aldera iristen bada ere. Nolanahi ere, Nafarroako eskualderik euskaldunenak harrapatzen ditu. Gure laguntzari esker, heien antolamendu sistema berritu eta gaurkotu dute, emisore digitalizatuz eta RDSI ildoan erositaz, horrela emisioen kalitatea nabarmen hobetuz.

Euskarari dagokionean, baita ere, hitzarmen bat sinatu zuen UDALBILTZAK Euskal Soziolinguistika Institutuarekin (SEIrekin). Gure udalerrietako euskararen erabilera neurtzen ari da erakunde hau, dirulaguntza hori dela medio. Euskal Herriko udalerrri guztiak jasoko dituen ikerketa honek, gure herrietako euskararen erabilera zenbatekoa den jakiteko balioko du eta, ondorioz, euskararen erabilera areagotzeko

hartu beharko ditugun neurriak zeintzuk diren hautatzen lagunduko digu.

Azkenik, aipamen berezi bat egin nahi nioke 2004ean ospatu asmo den Antxo IIIgarren Handiaren koroatzearen mileurteurrena ospatzeko ekitaldiari. FORO IRUN XXI eta EUSKOKULTUR elkarte kulturalak bultzatzen duten ospakizun honi geure babesa eman diogu. Egingo diren ekintza nagusienak zehaztuko ditut:

- kantata bat sortu nahi da eta horretarako Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartearekin bildu gara;
- garai hartako Euskal Herrian bizimodua eta gizarte giroa islatuko dituen antzerki bat sortu eta hedatzea;
- urte haietako gizartearen ezaugarriak eta zer-nolakoak bilduko dituen saio historiko bat idazteko lehiaketa antolatzea;
- Hondarribiako udalarekin batera, Antxo IIIgarren Handiaren ohorez monumentu bat eraikitzea, Higer lur muturraren gainean, toki-gune hartatik Euskal Herriko hiru komunitate administratiboak ikusten direlarik: Euskal Autonomi Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldea.

Ekintza hauen bitartez gauza bat hurbildu nahi zaie euskal hiritarrei. Hau da: 1004an ere bazela euskal gizarte bat, bere modura eta erara bizi zena, euskaraz bizi zena, bere barne egitura libre eta antolamendu propioa zuena eta aldameneko herriekin harreman onak eta auzokideak zituena. Eta hori, Antxo IIIgarren Handiaren babesean, zerbaitengatik deitu zioten musulmandarrek, koroatu zutenetik, "Euskaldunen jauna".

Eta 2002ko urteari begira, minutu gutxi barru, agertuko dizuegu aurrera eramán asmo dugun lan egitasmoa, euskara, ekonomia, turismoa, kultura eta udalerrien arteko auzolanaren inguruko gaiak eta ekimenak gauzatuko dituenak.

Euskal Herriko udal hautetsi adiskideak:

Orain arte egindako bidea ez da eroso izan. Kritika eta ulertezin franko nozitu dugu, baita nolabaiteko ahultasun politikoaren eragina ere eta berdin aurreikusitako sarrera finantzarioen beherakada ere.

Hala ere, gauza bat adierazi nahi dizuet argi eta garbi: UDALBILTZAren Zuzendaritza Batzordea osatzen dugunok, ekimen honetan tinko eta irmo sinesten dugula. Proiektu honen gaitasuna, beharra, gaurkotasuna, baikortasuna eta zilegitasun demokratikoa ozenki aitortzen dugula. Politikoki, sozialki, kulturaz eta ekonomiaz, eta hizkuntzaz, gero eta osatuagoa eta orekatuagoa izango den Euskal Herri bat eraikitzeke. Gure konpromezua, Batzorde Zuzendaritza honena, erronka horri erantzutea da.

Eta gauza bera da, zuei, guztioi, eskatzen dizueguna. Zuen konpromezua Erakunde honi laguntzen jarraitzeke. Zuen laguntza eta zuen parte hartzea eskatzen dizuegu UDALBILTZAren. Jakin badakigu denok gabiltzala buru-belarri eguneroko arazoetan murgildurik eta askotan ez zaigula erraza gertatzen horrelako Erakunde batentzat laguntza ekonomikoak aurrekontuetan sartzea. Baina jakin ezazue, asko egin daitekeela nahi izan ezker, era asko daudela laguntzeke eta zuen ahaleginaren jarraipena eta bat egitea ezinbestekoak direla UDALBILTZArentzat.

Zeren eta, 2001garren urteko Aberri Egunaren gure manifestuan genion bezala:

1.- Printzipio gizabidetsuekiko eta pertsona oroaren eskubide eta askatasunen defentsarekiko ezbaierik gabeko konpromisoa.

Bizi izateko eskubidea eta gizabanakoaren duintasuna dira errealitatea, politika, gizartea eta gure nahiak eta proiektu estrategikoak interpretatzeko oinarri nagusiak.

Solidaritateagatik eta pertsona guztiek, salbuespenik gabe, gure duintasuna defendatzeko eskubidea dugun aldetik, gure herri eta

auzo guztietan, biktima eta ETaren zentzu ezak mehatxatutako guztien ondoan gaude. Udaletako hautetsiak gara eta, bereziki, mehatxatutako zinegotzi eta beren senideen ondoan egon nahi dugu.

2.- Gizartegintza eta aberrigintza lana bide demokratikoen erabilpenean, askatasunean eta hiritargoaren borondatean oinarritu beharra dago; alegia, bortxakeriaren erabilpena gaitzetsiz eta une oro eta salbuespenik gabe gizabanako guztien giza-eskubideak errespetatuz, baita askatasunaz gabetuen eskubideak ere..

Bortxakeria eta aberrigintza bateraezinak dira. Bitartekoak eta helburuak ardatz berberak lotzen ditu: ekintza politiko eta demokratikoa.

ETaren bortxakeria, etika eta moral aldetik, guztiz arbuiagarria izateaz eta bizikidetasuna apurtzeaz gain, bere etorkizunaren jabea izan nahi duen herria egiteko proiektua oztopatzea helburu duenaren strategiari laguntzen dio.

3.- Euskal hiritarrek osatzen dute Euskal aberria. hiritarren borondatearen ekimen askeak ez ditu ez egoera mugiezinaren inposaketa onartzen, ezta indarrez ezarritako proiektuak ere.

Europako herririk aspaldikoena izanda, euskara dugu hizkuntza, europar historiaurrearen testigantza bizi bakarra. Horrez gain, bi Estaturen artean bizi den herria osatzen dugu, bere nazio izatea behin eta berriro ukatua izateak sortu dituen ondorioak gainditu nahi dituen. Aipaturiko ondorioek, errealitate politiko eta kultural desartikulatuaz gain, garapen demokratiko eta ekonomiko desorekatua sortarazi dute.

4.- Askatasunaren aldeko izateak herri bat indartsu egiten duela eta gure arteko bortxakeria eta gizabanako nahiz talde mailako mehatxua desagerrarazten duela uste osoa izanda, bakea da gure lehentasuna, eta aberri eta gizartegintza gure legezko proiektua.

Ilusioa dugu eta baita lan egiteko gaitasuna ere. Gure herriko gizon eta emakumeengan dugu sinesmen osoa. Guk dugu Euskadi- Euskal Herria bere orainaren protagonista eta bere geroaren jabe egiteko ardura.

UDALBILTZA[®]

Batzarraren helburuak:

- UDALBILTZAren zilegitasuna berretsi
- 2002. urteko Lan Egitasmoa
- Adierazpen Instituzionala

UDALBILTZAren sorrera:

- Su-etena
- Erakundea:
 - udalzaletasun tradizionala
 - Euskal Herriko lurraldetasunaren lekuko
 - Demokratikoa eta zilegi osoa
 - modernoa y europearra

"Euskal herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik, eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik"

Bide zaila:

- su-etenaren amaiera
- EH/Batasunaren erantzun eskasa
- Ezinezko "elkarlan aktiboa"
- EH/Batasunaren jarrera abstenzionista eta iheskorra
- UDALBILTZAren zuzendaritza politikotik kanpo

2001. urteko Lan Egitasmoa:

- Barne antolakuntza
- Euskera, hezkuntza eta kultura Nafarroan eta Iparraldean lagundu
- UEU, SEI y Antxo III Handia "*Euskaldunen jauna*"

Gure konpromizuekin jarraitzen dugu:

1.- Printzipio gizabidetsuekiko eta pertsona oroaren eskubide eta askatasunen defentsarekiko ezbairik gabeko konpromisoa.

2.- Gizartegintza eta aberrigintza lana bide demokratikoen erabilpenean, askatasunean eta hiritargoaren borondatean oinarritu beharra dago; alegia, bortxakeriaren erabilpena gaitzetsiz eta une oro eta salbuespenik gabe gizabanako guztien giza-eskubideak errespetatuz, baita askatasunaz gabetuen eskubideak ere.

Bortxakeria eta aberrigintza bateraezinak dira. Bitartekoak eta helburuak ardatz berberak lotzen ditu: ekintza politiko eta demokratikoa.

3.- Euskal hiritarrek osatzen dute Euskal aberria. hiritarren borondatearen ekimen askeak ez ditu ez egoera mugiezinen inposaketa onartzen, ezta indarrez ezarritako proiektuak ere.

4.- Askatasunaren aldeko izateak herri bat indartsu egiten duela eta gure arteko bortxakeria eta gizabanako nahiz talde mailako mehatxua desagerrarazten duela uste osoa izanda, bakea da gure lehentasuna, eta aberri eta gizartegintza gure legezko proiektua.